

ARROTZA



Albert Camus

JATORRIZKO IZENBURUA: L'ÉTRANGER

© Marjinalia Bilduma

© Xabier Galarreta

2. edizio zuzendua eta hobetua

199 urtea (urtarrila)

Legezko Gordailua: SS-186/96

Sarreratxo formala

“Arrotza” liburuak betidanik erakarri gaitu euskaldunok. Izenburuak berak harrapatzen gaitu, gure herrian askotan arrotzak sentitu izan garela gogora dakarkigulako. Hala ere, Albert Camus idazlea ez zen euskalduna. Beraz, garbi dago arrotz sentimendua ez dela soil-soilik euskaldunon patuaren zatia. “Han eta hemen, txakurrak ere oin-hutsik...” esango du baten batek.

Agian, arrotz sentitzeko bi modu daude. Alde batetik, sentimendu fisikoa; eta beste alde batetik, sentimendu animiko, izpiritual edo psikikoa (bide guztiak Erromara heltzen badira ere). Aberriak eragindakoa izango litzateke sentimendu fisikoa; eta gainerako faktoreek eragindakoa, sentimendu animikoa.

Albert Camusen kasuan, esango nuke bi sentimendu horiek bat egin zutela.

Garai hartan, Aljeria genuen Frantziako kolonia. Eta bertan bizi eta jaiotzen ziren frantsesei Europatik eta Paristik hain urrun bizi izateak zernolako arrotz-sentimenduak eragingo zizkien igartzea ez da bat ere zaila. Bestalde, gaur egun oraindik ere bizirik dagoen “pied noir” hitza nahiko esanguratsua gertatzen zaigu: hala deitzen baitzieten Aljeriako frantsesei, darion gutxiespen-zentzuarekin: “oin-beltzak” (guk agian “ipurdizikin” hitza asmatuko genukeen horientzat).

Bestalde, Bigarren Mundu-Gerrak bete-bete harrapatu zituen Camus-en belaunaldikoak. “Arrotza” eleberria, esaterako, 1942. urtean argitaratu zen, triskantza handia amaitzeko 4 urte luze oraindik falta zirela. Garai latzak, mingarriak ziren. Heriotza, ankerkeria, zentzugabekeria ziren ohizko paisajeak garai hartako europarren begitan. Beraz, halako garai batean halako literatura bat sortzea logikoa da (literatura eta arte-espresioak oro zer dira, bada, garatzen direneko euren gizarte beraren islada baino?).

Garai berean, Sartreren ideiak/jarrerak mamitzen hasiak ziren Frantzian eta Europan. Existentialismoaren bidetik, gizabanakoak halako absurdu, halako arrotz-sentimendu bati erreparatuko zion. Bigarren Mundu-Gerrak eragindako atsekabearen osteko gizarte europarrak harriduraz begiratzen zion iraganari, eta itxaropen apur batez saiatzen zen etorkizunari heltzen — itxaropenari heltzeko, oraindik urte batzuk igaro beharko bazuten ere—.

Hortxe dauzkagu nobelaren hiru klabe handiak, Meursault gaztearen arrotz-sentimendu eta jarrera adierazten digutenak: kolonialismoa, bigarren mundu-gerra eta pentsamendua (denetan askeena, beti bezala).

Amaitzeko, jolas bat proposatzen diot euskal irakurleari: ea aurkitzen duen bere burua

arrotz sentitzeko arrazoi bat edo beste. Mota guztietako arrazoiek balio dute eta bat baino gehiago izan daitezke (jokalari onak arrazoi ugari aurkituko ditu). Gero, denak zerrenda batean idatziz jarri eta lagunek zerrendatukoekin alderatu nor beraren arrazoiak. Euskaltasunari eta unibertsaltasunari loturiko arrazoiak aurkitzea beste pizgarri bat izan daiteke, taldearen eta gizabanakoaren ikuspegitik abiatuak denak.

Sarreratxo informala

Teoria zaharren arabera, infinitua gauza guztietan dagoenez, horrelako sentimenduetatik ihes egiterik ez dago, zeren arrotz-sentimendu baten eta hurrengo arrotz-sentimenduaren (sentimendu beraren) artean dagoen aldea infinitua edo amaigabea baita. Eta sentimendu hori infinituraino proiektu dezakegunez (ondorio bereko hainbat azpi-sentimendu infinitutan zehar), gure giza idiosinkrasiariaren aurrean men egitea baino ez daukagu. Hortxe hasten da gure ezintasuna, gure umore on eta lapidarioa. Hiltzen garenean norbaitek hilarri bat botako du espaziora, gure izen-abizenak idatzita izango dituen hilarri bat. Gutxi gora-behera, hori baita gure euskal patua (aldi berean, patu unibertsala dena, zorionez). Espazioan bueltaka ari den hilarri batean idatzitako izen-abizenak izatea; eta pentsatu egiten dugu; eta sentitu egiten dugu. Hortxe. Hilarrian bertan. Hilarria bera garelako. Eta hilarrian idatzitako izen-abizenak eta hilarria egin zuenaren oroitzapena eta honetxen adiskideena gogora ditzakegu. Eta halako batean dirdira handi bat gertatu zen gure begien aurrean. Eta konturatu ginenerako eskuan pistola bat geneukan. Eta behin, bitan, hirutan egin genuen tiro zeharo ezezaguna genuen pertsona baten aurka. Eta kasualitatez, pertsona hura beltza edo arabiarra edo poloniarra zen. Eta guk tiro egiten genuen espazioan mailu antzera flotatzen zuen isiltasunarekin hautsi nahi genuelako. Eta “tori, patu zitala”; “jaso ezak honako hau ere bai”; “eta

beste hau”. Gero, galdegin zigutenean ea zergatik egin genuen, ea zergatik hil genuen tiroz ezagutu ere ez genuen gizarajo hura erabat harrituta begiratu genion gure galdetzaileari, irri zital bat aurpegian genuela, arrazoien berri ez jakitea galdekatzailearen “beste amarru bat” izango balitz bezala. *“Ez, berriz ez gaituzte engainatuko. Eguzkiaren errua izan zela erantzungo diogu”*, eta arrazoi osoz. Eguzkia zainetan barna sartu zitzaigulako. Ikustea eragozten zigun. Eta azkenik zerbait ikustea lortu genuenean, formak desitxuratuta zeuzkan irudi mehatxugarri bat besterik ez genuen atzeman. Horregatik egin genuen tiro. Epaile jaunak ez dakiena da desitxuraturiko irudi hura gu geu ginela. Eta tiroak jasotzen zituen, bizia esku artetik galdu zuena, beltza edo arabiarra edo poloniarra zena gu geu ginela, tiro bakoitza guk geuk jasan genuela. Gero, epaile bihurtu ginen eta geure buruak epaitu genituen. Eta heriotzara zigortu genituen geure buruak. Eta urkamendiko lanak egin zituen borreroa, agindua eman zuen ofiziala, nire heriotza txalokatu zuen jendea eta nire gorpuari lurra eman zion lurperatzailea pertsona berak ziren: ni eta aldi berean inor ez. Zeren orain hilda nago, ezta? Eta hori ez da nire errua, ezta epaile jaunarena ere — nire absurduari odola ateratzerainoko ondorioak atera behar badizkiot ere—: zeren ni nintzenez eta aldi berean inor ez nintzenez, nire hilketa, nire herri-mina, nire niri-buruzko-nostalgia, neurri batean baino ez ziren egiazkoak izan —hilketa deitoragarria barne—. Beharbada, hiltzera eta

epaitzera jolasten ari zen jainko-zati nimiño bat nintzen. Eta orain, espazioa zeharkatzen duen hilarria naiz. Eta pentsatu egiten dut. Eta gogoeta egiten dut. Eta tiro egin nueneko instantea berriz ikustea iruditzen zait nire bidaia anti-sentimental honetan. Behin, bitan, hirutan... Behin, bitan, hirutan... Nire bakardade kosmiko, unibertsal eta infinitu honetan, nahitaez, aspergarrero errepikatzen diren hiru erantzun bakarrak horiek dira-eta, “nire zoritxarraren atean joak bezala...”.

X.G.

LEHENENGO ATALA

I

Egun, ama hil egin da. Edo atzo, ez dakit. Telegrama bat jaso nuen zahartegitik: «Zure ama zendu da. Ehorzketa bihar. Doluzko goraintziak.» Honek ez du ezer argitzen ordea. Atzo gerta zitekeen-eta.

Atso-agureen zahartegia Marengon dago, Algeriatik laurogei kilometrora. Ordubietako autobusa hartuz gero, arratsalde partean iritsiko nintzateke. Horrela, gaubeila egitea izango nuke eta hurrengo arratsean itzuli. Bi eguneko baimena eskatu nion nagusiari, eta, horrelako atxakia izanda, ez zidan ukatzerik izan. Berak, ordea, ez zirudien batere pozik. Esan ere, esan egin nion: «Ez da nire errua». Ez zidan ezer erantzun. Orduan, horrelakorik bota beharko ez niokeela pentsatu nuen. Dena den, ez neukan neure burua zuritu beharrik. Areago ere, berari zegokion bere doluminak agertzea. Baina etzi emango dizkit, zalantzarik gabe, janzki beltza jantzita ni ikusi bezain laster. Oraingoz, eta neurri batean behintzat, ama hilda ez balego bezala da. Ehorzketaren ondoren, amaitutzat joko dugu hau guzti hau eta itxura ofizialagoa hartuko du giroak.

Ordubietarako, autobus barruan nengoen. Bero-bero ari zuen. Jatetxean bazkaldu nuen, Célestenean, beti bezala. Denek zuten urriki nitaz eta Célestek esan zidan: «Ama bakarra dugu».

Abiatzerakoan, ateraino lagundu zidaten. Azturatuxe nengoen Manuren etxera igo behar nuelako, gorbata eta besoko beltza mailegatzeko. Orain dela hilabete gutxi, bere osaba galdu zuen berak.

Autobusa harrapatzeko, korrika ibili nintzen. Presaka eta korrika ibili, autobusaren dinbili-dantzak, gasolina usaina, bide eta zeruko dirdirazioa... Dudarik ez, honengatik guztiagatik hartu ninduen loak. Lotan egon nintzen ia bide osoan zehar. Eta esnatzerakoan, ea urrutitik nentorren galdetzen zidan militar irritsu baten kontra eutsita nengoela ohartu nintzen. Nik «bai» esan nion, luzez mintzatu beharrik ez izatearren.

Zahartegia herritik bi kilometrora dago. Oinez egin nuen bidea, ama berehala ikusi nahi nuelako. Baina atezainak esan zidan zuzendariarekin egon beharra neukala. Hura lanpeturik zegoenez, piska batez itxaron nuen. Bien bitartean, hitz aspertu bat izan zuen atezainak nirekin, eta handik gutxira zuzendariarekin bildu nintzen: bere bulegoan hartu ninduen. Agure txikia zen, ohorezko legioduna. Bere begi klaru haiekin begiratu zidan. Gero, bostekoa eman zidan, bai eta luzaro eman ere —ez nekien bostekoa nola kendu—. Txosten batean zerbait irakurri eta esan zidan: «Meursault and. duela hiru urte sartu zen gureru. Zeu zintuen euskarri bakar». Neure burua garbitzen hasi nintzen, zerbait aurpegiratu nahi zidalakoan. Baina orduan berak esan zidan: «Ez duzu burua zertan zuritu behar, seme. Zure amari buruzko txostena irakurri dut. Berari laguntzerik ez zeneukan. Erizain bat behar zuen. Soldata apala da zurea. Bestalde, hemen

zoriontsua zen». Eta nik: «Bai, zuzendari jauna». Orduan, besteak erantsi zuen: «Jakingo duzunez, hemen lagunak zituen, adin bereko lagunak. Garai zaharrei buruz hitz egin ahal zuen beraiekin. Zu gaztea zara eta zurekin nahiko aspertuta egongo zen.»

Egia. Ama etxean zegoenean, niri begiez jarraika pasatzen zitzaion denbora osoa. Zahartegian igarotako lehen egunetan, sarritan egiten zuen negar. Ohitura hutsagatik ordea. Hilabete batzuk pasata, negar ere egingo zukeen zahartegitik atera izan balute. Ohitura hutsagatik beti. Neurri batean, horregatik ez nintzen apenas hona hurbiltzen. Gainera, horrek igandea izorratuko zidakeen — autobusa hartu, bileteak atera eta bi orduko bidea egiteko nekea kontutan hartu gabe.

Zuzendariak oraindik hizketan jarraitzen zuen. Baina nik ez nion entzuten jada. Gero, esan zidan: «Oker ez banago, zure ama ikusi nahiko duzu». Tutik esan gabe jaiki nintzen eta berak aterantz jo zuen nire aurretik. Eskaileran, zera adierazi zidan: «Gorputegitxora eraman dugu, besteak asalda ez daitezen. Pentsionista bat hiltzen den bakoitzean, gainontzekoek urduri irauten dute hiruzpabi egunetan. Eta honek zailago jartzen dizkio gauzak zerbitzuari». Taldetxoka solasean, atso-agure asko zeuden patioa zeharkatu genuen. Haien aurretik pasatzerakoan, isildu egin ziren. Baina haiei bizkarra eman bezain laster, berriro ere ekin zioten hitz egiteari. Papagaitxo batzuek ateratako iskanbila itzaliezina bezalakoa zen. Azkenez, eraikin txiki bateko ate aurrean utzi ninduen zuzendariak: «Joan

behar dut, Meursault jauna. Bulegoan izango nauzu nahi duzunerako prest. Ondo baderitzozu, goizeko hamarretan egingo dira hiletak. Horrela, zenduari gaubeila egitea izango duzu, ezta? Bukatzeko, zera: zure amak, dirudienez, sarritan agertzen zien bere lagunei hileta erlijiosoak izateko desira. Neurriak nire kasa hartu ditut, beraz. Esaten dizut jakinaren gainean egon zaitezzen». Eskerrak eman nizkion. Amak, jainkogabea ez izan arren, bizirik zegoenean inoiz ez zuen erlijioan pentsatu.

Barrura sartu nintzen. Gela oso argitsua zen, karez zuriturik eta beiradura batez estalirik. Aulkiz eta x itxurako astokoz apainduta zegoen. Hauetako bik, erdi-erdian, oihal batez estalitako hilkutxari eusten zioten. Torlojo dirdiratsuak baizik ez ziren ikusten, ozta-ozta sartuta zeudenak, intxaur-margoz bernizaturiko oholetan nabari. Hilkutxa ondoan, brusa zuria janzten zuen erizain arabiar bat zegoen, kolore biziko buru-zapia ere jantzita.

Une hartan hain zuzen, atezaina sartu zen nire atzetik. Korrika ibilia omen zen. Esan zuen, totelka: «Estalita dago, baina oihala kenduko dut eta horrela bera ikusi ahal izango duzu». Baina hilkutxara hurbiltzekoa egin orduko, bertan geldiarazi nuen. Berak: «Ez duzu nahi?». Eta nik: «Ez». Geldi geratu zen eta ni zertxobait aztoratu nintzen, beldur nintzen-eta horrelakorik ez niokeela esan beharko. Unetxo bat pasata, niri begiratu eta galdegin zidan: «Zergatik?», baina haserrerik gabe, soilik arrazoiaren berri izateagatik edo. Nik: «Ez dakit». Orduan, bere bibote zuria leunduz, ihardetsi zidan niri begiratu gabe: «Ulertzen dut». Begi ederrak zituen, urdinskak,

eta haren larru-azala gorrixka samarra zen. Aulki bat eskaini zidan eta bera ere eseri zen apurtxo batez, nire atzean. Erizainak zutitu eta aterantz abiatu zen. Une honetan, esan zuen atezainak: «Txankro bat du». Ulertzen ez nuenez, erizainari begiratu eta ohartu nintzen emakumeak benda bat zeukala begi azpitik buruari lotuta. Sudur mailan, benda lau-laua zen. Bendaren zuria baino ez zitzaion nabari aurpegian.

Erizaina atera eta gero, esan zidan atezainak: «Bakarrik utziko zaitut». Ez dakit zer keinu egingo ote nuen, baina bestea hantxe iraun zuen, nire atzean zutik. Aspergarria zen presentzia hura nire bizkarrean nabaritzea. Arratseko argi ederrak betetzen zuen gela. Beiraduraz haruntzago, bi erlastar ari ziren burrunbaka. Eta orduan, loak hartzen ninduela sentitu nuen. Baina harengana bueltatu gabe galdegin nion atezainari: «Aspalditik al zaude hemen?». Berak berehala erantzun zidan: «Duela bost urtetatik» —nire galderaren zain beti egon bailitzan.

Berbari ekin zion segituan, gogotsu. Urte batzuk lehenago norbaitek esan izan balio Marengoko zahartegian atezain bukatu behar zuela, harri eta zur geratuko zatekeen. Hirurogeitalau urte zituen eta paristarra zen. Une hartan eten nion, esanez: «A! Ez zara bertokoa, beraz?». Gero, zuzendariarekin bildu baino lehen amari buruz hitz egin zidala gogoratu nuen. Oso azkar lurperatu behar zutela esan zidan, lautadan bero izugarria egiten duelako, batez ere inguru hauetan. Eta orduantxe kondatu zidan Parisen jaioa zela eta nekez ahazten zuela bere jaioterria. Parisen hiru, batzuetan lau

egunez geratzen ziren hildakoari gaubeila egiten. Hemen ordea ez zegoen denbora alferrikatzerik; etsitzeko astia oraindik izan ez eta korrika atera behar duzu hilgurdia ren atzetik. Emazteak eten zion: «Zaude isilik, horrelakorik ez zaio jendeari kondatu behar eta». Agurea bere burua zuritzen hasi zen, lotsaz. Nik orduan parte hartu nuen, esanez: «Lasai, benetan». Bere kondaketa zinez interesgarria iruditzen zitzaidan.

Gorputegi txiki hartan geundela, zahartegian behartsu moduan sartu zela kontatu zidan. Gai sentitzen zenez, atezain lanposturako aurkeztu zuen bere burua. Azken finean, bera ere pentsionista zegoela ohartarazi nion. Baina berak ezetz erantzun zidan. Ordurako banengoen ni susmoak hartuta, haren hizkera dela eta: «haiek», «besteak», eta ez hain sarri «zaharrak», bera baino urtetsuagoak ez ziren pentsionistei buruzko solasaldietan. Ez zela berdin, noski. Bera atezaina zela, eta neurri jakin batean, besteen gaineko eskubideak zituela.

Une hartan, erizaina sartu zen. Arratsaldea joana zitzaigun ia konturatu gabe. Azkar-azkar, gaua lodituz zihoan beirazko sabai gainetik. Atezainak konmutadoreari eragin eta bapateko argi-dirdirak itsutu egin ninduen. Jantokira joatea proposatu zidan, bertan afaltzeko. Ni ez nintzen gose ordea. Berak orduan galdetu zidan ea kafesnerik hartu nahi al nuen. Nola kafesnea biziki gustatzen zaidan, baietz esan nion; eta unetxo bat pasata, bandexa bat eskuan azaldu zen. Nire kafesnea hartu nuen. Gero, erretzeko gogoa piztu zitzaidan. Baina duda-mudatan gelditu nintzen, amaren aurrean erretzea ondo

egongo ote zen. Gogoetak egin nituen kontu honi buruz. Azkenez, ez zuela axolarik erabaki nuen. Beraz, atezainari zigarro bat eskaini eta biok hasi ginen zigarro bana erretzen.

Ustegabeen, esan zidan: «Ba al dakizu gauza bat? Zure ama maitea zenaren lagunak ere etortzekoak dira gaubeila egitera. Horrelaxe egin ohi da eta. Aulki eta kafe bila joan beharra daukat». Argietariko baten bat ba ote zegoen itzaltzerik galdetu nion, horma zurietako argi-dirdirapenak neka-neka eginda uzten ninduen-eta. Ezinezkoa zela esan zidan. Instalazioa horrela egina zegoela: denak ala batere ez. Baina jadanik ez nion kasurik egiten. Joan, berriro itzuli eta aulkiak jarri zituen. Aulki horietako batean, kafeontzi inguruan, kizarak pilatu zituen. Gero nire aurrean eseri zen, amaren hilkutxaz bestaldean. Erizaina ere gela barruan zegoen, eta, bizkarra ematen zigun. Ez nuen ikusten zertan ziharduen. Baina bere beso-mugimenduak ikusita, ehotzean ziharduela esango nuke. Giro ona egiten zuen; kafeak bizkortzen ninduen; eta, gau eta lore-usaina zetorren ateaz bestaldetik. Logale nintzela uste dut. Igurtzi bat izan zen iratzarri ninduen. Begiak itxita egon eta gero, dirdiratsuagoa iritzi nion gelako zuriari. Nire aurrean ez zegoen itzalik bat ere; eta objektu, angelu, kurba bakoitza zirriborratzen zen begirako mingarria zen garbitasun zaurikorrez. Guztira hamabi ziren, eta poliki-poliki limurtuz zihoazen argi itsugarri hartan. Aulki baterek karrak egiten ez zuela, eseri egin ziren. Lehenago ez neukan sekula ikusita haiek bezalako inor, eta aurpegiko edo janzkietako xehetasunik batere ez zitzaidan oharkabe

pasa. Dena den, ez nien kasurik egiten eta apenas sinesten nuen beraien errealitatean. Emakume gehienek amantal bana janzen zuten, eta gerrietako lokarriak zirela-eta euren sabel irtenak are nabarmenagoak ziren. Ordurarte ez nintzen inoiz ohartu nolakoak izan daitezkeen atsoen sabelak. Gizonak mehe-meheak ziren eta ilezuriak zituzten. Haien begiez gehiena harritu ninduen begirik ez ikustea izan zen, bizitasunik gabeko dirdir bat besterik ez baitzegoen zimur-habia antzeko haietan. Eseri zirenean, ia denek niri begiratu eta beren buruei eragin zieten uzkur. Hortzik gabeko ahotsek ezpainak erabat janda zeuzkatela ohartu nintzen, agurtzeko keinu edo tiken bat ote zen esatea zaila izan arren. Agur egin nahi zidatelakoan nago. Une hartan hain zuzen ohartu nintzen denak nire aurrean eserita zeudela, euren buruei zabu eginez, atezainaren inguruan. Eta momentutxo batez, ni epaitzeko bertan zeudelako inpresio barregarria izan nuen.

Handik laster, emakume batek negarrari eman zion. Bigarren lerroan zegoen, lagun baten atzean erdi ezkutaturik, eta horregatik ez nuen ondo hura ikusten. Oihu txikiez egiten zuen negar, era irregular batez: negarrari ez liokeela inoiz utziko iruditzen zitzaidan. Besteek bazirudien ez ziotela entzuten. Atsekabe, goibel eta isilik zeuden. Hilkutxari edo beren makilari begiratzen zioten, ez dakit, baina *horri* baizik ez zioten begiratzen. Emakumeak negar egiten zuen etengabe. Ni harri eta zur nengoen, ez bainuen emakume hura ezagutzen. Nahiago nukeen laster isildu izan balitz. Atezaina

beragana makurtu eta zerbait esan zion, baina besteak buruaz ezetz erantzun, zerbait marmartu eta tema berberaz segitu zuen negarrez. Orduan, atezaina nigana hurbildu zen. Nigandik hur-hurbil eseri zen. Une luze bat pasata, hauxe jakinarazi zidan begia altxatu gabe: «Zure ama maitea zenaren lagun min-mina zen. Toki honetan lagun bakar zuela dio, eta orain ez duela inor».

Horrelaxe jarraitu genuen beste une batez. Emakumearen zizpuru eta negar-zotinak gero eta bakanagoak ziren. Behin eta berriz egiten zuen zintz. Azkenez, isildu egin zen. Ni jadanik ez nintzen logura, baina nekatuta nengoen eta giltzurriak minduta neuzkan. Orain pertsona haien isiltasuna zen unagarria egiten zitzaidana. Noiz edo noiz, hots bitxi bat entzuten nuen, baina zer izan zitekeen ulertu ezinez nengoen. Berandu baina, azkenez lortu nuen hots hura zerk eragiten zuen jakitea: atso-agure batzuek masailak barrutik-edo xurgatu eta mihi-klaska benetan bitxiak ateratzen zituzten. Hain liluratuta zeuden, ohartu ere ez ziren ohartzen. Era berean, denon erdian etzanda zegoen hildako hark ez zuela zentzurik iruditzen zitzaidan. Gaur egun, ordea, oker nengoela uste dut.

Denok hartu genuen kafea, atezainak zerbitzatuta. Gero ez dakit ezer, ezertxo ere ez. Gaua joana zen. Gogoratzen dudanez, begiak une jakin batean zabaldu eta atso-agureak pila batean lotan ikusi nituen, bat izan ezik, eta honek, makilari oratutako esku-gibelaren aurka zeukan kokotsa jarrita. Adi-adi begiratzen zidan, nire esnatzeaz baino arduratuko ez bailitzan. Gero, berriro lotan geratu

nintzen. Giltzurrinetan gero eta min biziagoa nuela, esnatu egin nintzen. Eguna beira-sabai gainetik labaintzen ari zen. Beranduxeago, zahar bat esnatu eta eztulka aritu zen luzez. Txua eskuzapi handi eta koadradun batean botatzen zuen, eta bere txu horiek urradurak bezalakoak ziren. Besteak iratzarri zituen eta alde egin behar zutela esan zien atezainak. Jaiki egin ziren. Gaubeila deseroso honek errauts antzeko utzi zizkien aurpegiak. Handik ateratzean, eta ez nolanahiko harriduraz nire aldetik, bostekoa estutu zidaten denek —hitzik batere emandako gau horretan, nolabaiteko hurkotasuna sortu izan bailitzan gure artean.

[...]